

Nafarkaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1994ko martxoak 11 / IV. urtea / 118. zenbakia

Nafarren Etxeendako urte ederra izanen da hurrengo. Orduan betriko ditu ehun urte Buenos Aireskoak, denen artean zaharrenak. Egun 23 dira, Espainian eta Ameriketara zabaldu, eta gazteenak bi urte besterik ez dauka. Emigranteek sortuak, hasieran nafarrei harrera eta laguntza emateko sortu ziren, eta ondoren lagunekin eta herrikideekin biltzeko. Emigrazio gairiak pasatuta, egun laugarren belaunaldiko gazteak ari dira bertan, eta etorkizuna ez da oso itxurazkoa. Betikoari eutsiz gero zahar etxe edo etxe erregional bihurtu daitekeen beldur, toki askotan kultur etxe izateko, folklore hutsa ez izateko, alegia, urratsak ematen ari dira. Denboraren poderioz ere ahaztu egin dira Euskal Etxeekin zenbait haserre —oraindik gaur egun nafar gehiago dago horietan Nafarren Etxeetan baino— eta, salbuespenak salbuespen, harremanak onak direla diote toki orotan.



Nafarren Etxeak: folklore hutsa?

Begi itxi-irekia

MATIAS MUJICA

Nitx, oi Nitx

Denboraz, euskal literatura haur zazpikiaren gisakoa omen zen: beste guzien atzetik urgun ibilki, ezinean eta errestaka. Berandu eta eskas jakiten omen genuen munduko berri, eta bestetan aspaldi ederretik hilda zeudenean iristen omen ziren iraultzak eta mugimenduak euskarara (ez Euskal Herrira). Hala omen zen. Baina 'Gizona bere bakardadeango' pertsonaien hurrengo belaunaldian jaiotakoontzat horrek guziak omenka kontaturik behar du. Guk besterik ikusi baitugu: gaurkotasan zer-

bait, korrante, estilo eta ideologiaren gama zabal xamarra. Eskas, egia, baina konpleto. Homologatuak. Eta modernidaderainoko gorabide ezin baratu honetan, falta genuen harmaila inportante bat igo dugu berriki: nitxianismoa ere bereganatu dugu. Txalo.

Txalo bai, baina galdera batzuk ere bai: Nitxianismoak sinisgai bakarria baldin badu indar soil eta itsuak gobernatzen duela bizitza, moral guziak ahulen sor-kari itxuragabeak direla indartsuen ondagoran grilluak jartzeko (ahulak, burruka egiteko on izan ez, eta morala matxinabide), urriki klase guziek bizi senari azpiak jaten dizkiotela, eta beraz



justizi eskeak farregarriak direla; hori guzia horrela bada, nola demontre ezkon daiteke euskaltzaletasunarekin? Nitxiano batek nola aukera dezake baztertu, galtzaileen, ahulen hizkuntzan idaztea? Euskal Herrian euskara da, ezer bada-ta, anakronismo

bizi bat; beste korrante batek darama bizitza, ez euskararenak behintzat. Nola egin dezake nitxiano batek historiaren biktimen aldeko holako apustu ahulgarririk? 'Nik ez dut neure burua euskaldun aukeratu' esan lezake agian, eta hori, egia ez bada ere, arrazoi bat bada; baina orduan, nitxiano jokatzeko segitu nahi bado, zer arrazoi emanen dio Euskal Herriko erdaldun guziz maioritario bati euskaraz ikas dezan, ikuspuntu horrekin lot daitekeen arrazoi pisuzko bakar bat, alegia? Hain bistan eta agerian galtzaile eta gainbehera dabilen hizkuntza bat ikasteko, hizkuntza zaila gainera, bestea gutxi zelarik.

Ez: nitxiano bat ez da urrikeritan ibiltzen eta justizi eskeak farregarri zaizkio: bizitzan sinisten du, eta bizitza erdaraz dago. Euskaltzaletasunak justizi eskea du oinarri eta sorburu, eta ororen buruan kristau kutsu ezin ukatua. Behin urriki eta kulpazko lastre moral guziak erantzirik, nitxiano bat New Yorken broker egingen da akaso, euskaltzale baino errezago bai behintzat, baina apenas hasiko den euskaraz ikasten, eta jakinda ere ez du euskaraz idatziko. Txalo, beraz, eta ongi etorri, Nitx jauna; baina jarrera horretan, nik lausoki sumatzen dut bene-benetan egia ez den zerbait.

ZINEMA



'Viven' izenburuko pelikula ospetsua botako dute heldu den ostegunean, martxoak 17, Tafallako Español zineman. Kultur Patronatuak antolatuta, bi saio izanen ditu, bata arratsaldeko 20.00etan eta bestea gaueko 10.30etan. Sarrerak 200 pezetan saltzen dituzte. Asteburu honetan, bestalde, 'Bambi' izeneko pelikula emango dute haurrentzat, larunbatean arratsaldeko 18.00etan eta igandean 15.45etan. Sarrerak, 100 pezetan.

'Los gitanos se van al cielo' izeneko filmea botako dute heldu den asteartean, martxoak 15, Iruñeko Olite zineman. Nafar Ate-neoak antolatu duen zinema sobietarrari buruzko zikloaren barruan, arratsaldeko 20.00etan hasiko da. Bazkideentzat, sarrera dohainik izanen da.

'Pasion y triunfo' izenburuko pelikula botako dute asteburu honetan Donezteben, larunbat eta igandean, arratsaldeko saioetan.

'Historias de la puta mili' eta 'Daniel el travieso' filmeak ikusi ahal izango dira asteburu honetan Leitzako zineman, ostiral gauean eta igandeko saioetan.

MINTZALDIAK



'Bosniako gerra: zergatiak, aktualitatea eta erantzuleak' gaiari buruz hitz egingo du heldu den asteartean, martxoak 15, Gerrarik Ez taldeko Javier Aisak. Arratsaldeko 19.00etan hasita, Zizur Nagusiko Kultur Etxean izanen da.

BESTELAKOAK




'Mac Kinley: ixiltasun txur-ria?' izenburuko diapositiba emanaldia eskainiko du gaur arratsaldean Mikel Reparaz mendigoizaleak. Nafarroa Kirol Elkartek antolatu du eta bere egoitzan izanen da, Jarauta kalean, arratsaldeko 20.00etatik aurrera.

Lilaketa izeneko lasterketa eginen da igande honetan, martxoak 13, Iruñeko kaleetan. Emakumeei zuzendua, lau kilometroko ibilaldia izanen da, kirola bultzatzeko emakumeen artean. Eguerdian hasiko da, Gaztelu Plazan, eta parte hartu nahi dutenek aldeztu aurretik izena eman behar dute, Andrea-ren egoitzan, IPESen edo Beste Iruña-ren lokaletan. Telefonoz ere egin daiteke, egun berean baldin bada, 10.00ak eta 11.45ak bitartean.

NAFAR KRONIKA

ALBERTO BARANDIARAN

Porrotari beldur



Aspaldian gertatu bazi- ren ere, horrelakoak izan behar bigarren eta hirugarren mailen artean hainbeste denboralditan ibilitako pasadi- zoak. Joko txarra —hiruga- rren mailan ona, hain segur—, nerbioak, jokalarien arteko zartakoren bat edo beste, eta presidenteen dimisioak (?). Hori guztia gertatzen zen, eta gehiago, baina ez zuen orain- goak adina min ematen. Zer- gatik? Jendea ohituta zegoe- lako.

Futbolak badu arazo bat as- ki garbia: gauza guztien erdia izan nahi du, eta askorendako halaxe da. Herri, hiri edo talde baten ispilu bihurtzen da —talde bat baino gehiago

da...— eta, jakina, dena joka- lari batzuen emaitzen baitan jartzen da. Jugoslaviar ohi tre- be bat fitxatuz gero, zorion- tsuak izango gara denboraldi osoan zehar, baina Milinko- vic, Pedersen, Angelov edo Spasic bezalako moldagaiz- tokoren bat hartuz gero, sufri- tzeko urtea izango dugu, ezin ahanztekoa.

Fermin Ezkurra, gizon az- karra den neurrian, konturatu zen Osasunak ezin izango zi- tuela lorpen handiak ekarri, baina bai urtero poz txikiak —benetan balio dutenak— eman. Eta halaxe ibili dira go- rritxoak. Urtero nahiko lan denboraldi tajuzkoa egiteko, baina beti partidu ederren bat

edo besterekin: Madrid zela, Barcelona zela...

Aurten ez da poz txikirik ere izan, eta kritikak ez ditu jasaten Ezkurra jaunak. Min- bera baita oso. Soilik behin izan nuen berarekin egoteko parada, protokolozko afari batean, eta egia esanda, ez da kritikak erraz onartzen dituen horietakoa. Dena ongi egiten zuen ustean zegoen, eta bere buruan izugarritzko konfian- tza dutenetakoa zela iruditu zitzaidan.

Horregatik ez du onartu Bigarren Mailarena. «Histo- riak epaituko nau» zioen as- teazkenean, eta historiak po- rrotari beldur izan zion gizona izan zela esango du.

ASTEKO PERTSONAIK



Jose Mari Aierdi
Lekunberriko alkatea

Lekunberriko alkateak paratutako salaketa dela eta Larraun eta Basaburuko alkateen kontrako epaiketa bertan behera gelditu zen asteartean Iruñeko Entzutegian, euskarazko itzultzailek ez zegoela eta. Epaiketa irail aldera egingo da. Salaketa 1992ko urtarrilean paratu zuen Aierdik, Larraun eta Basaburuko alkateek Leader programaren inguruan izandako irregulartasunak salatu zituztenean. Horiekin batera Errazkin, Albiasu, Aldatz, Oderitz, Arruiz eta Oskozko kontze- juetako presidenteez sinatu zuten eskutitza. Harritzeko bada ere, ez da epaiketa honetan itzultzailea eskatzen den lehendabiziko aldia. Hasierako diligentiak hasi zirenean, akusazioko lekuko berak eskatu zuen, baina, nonbait, ez dabilta oso fin bertan.



Patxi Eugi
Pilotaria

Azkenean, askok uste ez bazuten arren, Patxi Eugik ez du Manomanistan parte hartuko. Erabakia ongi pentsatu duela adierazi zuen Agoizko pilotariak: «Gauza guztiak aztertuko ditut, eta ondoren, enpresari azalduko diot azken erabakia», izan ziren joan den astebu- ruan Eibarko Astelena pilotalekuan egin zituen adierazpenak. Eta hiru egun geroago baieztatu egin zen berria. Lehendabizikoa Tolosa izan zen, ondoren —ezuste galanta gainera— Retegi II, eta orain, azkenik, Eugi. Martxa honetan, lau pilotari besterik ez dira geratuko elkarren kontra jokatu eta txapela banatzeko. Eskuan arazo asko, gehiegi ziu- rrenik, izan ditu Eugik azken hilabetetan, eta jokatzeko hasi bada ere, bere burua ez duela Manomanistan ikusten aipatu du.

AHAZTU GABE!

IBILALDIA



Belaguako Goimendi Ibilaldia izanen da igande honetan, mar- txoak 13, Nafarroa Kirol El- karteak antolatuta. Aurtengoa 23. edizioa da, eta beste urte batzuetan ez bezala, elurrik ez da faltako ibilbide osoan, Be- laguako inguruak txuri-txuriak baitaude. Ibilaldia igandean bada ere, larunbatean emanen zaio hasiera Belaguako ater- bean izango den afariarekin. Antolatzaileek adierazi dute- nez, partaideek beren autoetan aterbera joan beharko dute, eta itzulera bazkariaren ostean izango da. Inskripzioa egiteko, izen-abizenak aterbean eman behar dira, helbidearekin bate- ra. Kuota 3.800 pezetakoa izan- go da, eta barruan, larunbateko afaria, gaua igarotzea, gosaria, bazkari poltsa talde bakoitzeko eta azken bazkaria sartzen dira. Hau guztia, Belaguako Angel Oloron aterbean eginen da. Ibi- laldia taldeka eginen da, eta talde bakoitzean mendian fe- deraturik dauden bi lagunek egon beharko dute, antolatzai- leek bereziki gomendatu dute- nez. Partaideek aldeztu aurretik markatutako bideari jarraituko diote, eta ibilbidearen iraupena 6 eta 8 ordu bitartekoa izanen da.

JENERO XUMEKOAK

Aitaren testamendua (II)

Aralar mendigailurrera eraman ninduen aitak eta esan zidan: 'Begira semea, zure begiek ikusten duten guzia, egun jakin batean ez da zurea izanen. Askik da zure buruaren jabea ba- zara'.

ELIAS SARASA - ERRO

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehenetik ostira- lera, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etati 22.00eta- ra... 'Karakola segi hola' gaz- teendako saioa.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elka- rrizketak.

KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gai- netik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak...



Elizondo

Antxitonean bigarren saioa

PATXI ULAIAR / IRUÑA

Nafarroako Bertsolari Txapelketaren bigarren saioa ikus-tekoteko parada izango da asteburu honetan, Antxitonea trinkete famatuan. Arratsko 16.30etan izanen da kanporaketa, eta, jakinaenez, zortzi bertsolarik hartuko dute parte: Mixel Aire 'Xalbador II', Ernest Alkat, Estitxu Arozena, Kesus Arzallus, Bittor Elizagoien, Estitxu Fernandez, Jean Pier Harinordoki 'Laka' eta Aitor Telletxeak.

Bertso saio ederra izan daiteke, iazko finalean aritu ziren lau bertsolari —Xalbador, Estitxu Arozena, Bittor Elizagoien eta Aitor Telletxea— eta Kexux Arzallus izango baitira bertan. Hendaiari bizi den goiazarrak saio aparta egin zuen iazko txapelketan eta aurtengo Txapelketa Nagusian ere oso lan ona egin zuela. Beraiekin batera, Ernest Alkat eta Laka beteranoa izanen dira Antxitonean.

Eta ezin tokirik aproposagoa aukeratu horretarako —finala merezi bazuen ere—, Elizondoko trinkete zaharra baino. Ehun urte beteko baititu aurten. Mende honetako euskal kulturaren hainbat festa eta ospakizun bertan egin dira eta baztandar guztiek ederki ezagutzen dute. Halaber, bertsolaritza funtsezko erreferentzia izan zen urteetan zehar, eta bertan izan ziren Nafarroa osoan antolatutako lehen bertso saioak. Horma horien ar-



Arzallus eta Alkat berriro elkarrekin izanen dira.

tean kantatu dute, besteak beste, Txirrita, Uztapide, Lasarte, Xalbador, Mattin eta hainbat bertsolari ospetsuk.

Saio polita ikusi ahal izango da, beraz, toki aparta honetan. Gazteek, bereziki Estitxu Arozenak, lehendabiziko saioan erakutsitakoa gezurtatu egin beharko dute, Saran 'zaharrak' agertu baitziren nagusi. Kontra-

rio latzak izango dituzte, baina, finalean sartzeko, Alkat, Arzallus, Xalbador eta Elizagoien esperientzia handikoak baitira. Lehendabiziko biak zuzenean joanen dira finalera, eta azkeneko biak kalean gelditu dira. Erdian geldituriko laurak Sarako beste laurekin —Ezponda, Silveira, Amaia Telletxea eta Iñigo Olaetxea— lehiatuko dira.

Donapaleu

Arto ekoizleen kezkak Lur Berri kooperatibaren bileran agertu dira

L.E. / BAIONA

Donapaleu da Nafarroa Behereko hiri nagusia baino gehiago da artoaren hazkuntzaren arloan, Iparralde guztirako politikaren zuzendari baita. Artoaren produkzioa duela 30 urte hedatu zen, Lur Berri Donapaleuko Kooperatibaren eraginez eta honen atzean zen Jean Errekart Arberatzeko hautetsi aipatuaren itzalean.

Artoaren ekoizpenaren beharrek ingurugiroa itxuraldatu zuten asko, lur antolakuntza eta elkarretaratzeko sortuz, *rememberment* legeak aplikatuz. Artoaren hazkuntzan, bat guztiz etekin ekartzaila agertu zen, 'arto hazitakoarena'. Arto honen hazkuntza berezia, uztailako 'kukula mozteekin', Amikuzeko ikur bilakatu ziren.

Hargatik aberastasun erlatibo

baten garaia duela hamar urte bukatu zen, Europa eta Estatu Batuen ekonomi harremanen ildotik. Horrela arto eremuak murriztu behar izan ziren, urtetik urtera. Horrela 1991. urtean 3.700 hektarea arto egin zen eta ondoko urtean 1.900. Ekoizpen gehiegia Lur Berriren programen apaltze bat agindu zuen. Ondoko urtean, 1993.ean 2.200 hektarea erein ziren.

Urte berri honi buruzko programez hitz egiteko, Lur Berri kooperatibak berriki 120 nekazari bildu ditu. Lur Berri bere nahikaria agertu du, iazko neurrien atxikitzea. Maiatzean eraiten baita artoa, oraindik ez dira eginkizunak osoki definituak. Artoaren eremuetatik aparte, beste arzoa da artoaren prezioa. Esnearen arazo berdintsua da, ez baita ezer finkaturik eta enpresak agintari baitira.

1992.ean arto ekoizle bakoitzak bere landen eremua % 40 murriztu zuen. Iaz aldiz arto hazitako eta kontsumorako artoaren txanda sistema bat bidean jarri zen. 2.000 libera (50.000 pta) hektareako eskaini zion 'indemnitazio' kontuz arto hazitakoa utzi zutenei: kooperatiba eta arto hazitako ekoizleek ordaindu zuten diru hori. Aurten zozketa sistema bat erabiliko da jakiteko nork zer egiten ahalko duen. Sistema zalantzarri horrek egoera arriskutsua isladatzen du. Beste arazo kaltegarria da urte hasiera honetan Frantzian estokatua den artoa 'kanpainaren' hasieran iazkoa baino handiagoa dela: 90.000 tona, iaz baino 20.000 tona gehiago. Horrek ekar lezake 5.000 hektarea arto landen ezabatzea Frantzian. Amikuzen espero da ez dela horrelakorik gertatuko.

Izaba

Belaguako Goi Ibilaldia igande honetan

IRUÑA

Igande honetan jokatuko da Belaguako Goi Ibilaldia, Euskal Herriko eski proba beteranoena. Dagoeneko 23. edizioa du Club Deportivo Navarra taldeak antolatutako proba honek, eta merezitako ospea eskuratu du urte hauetan guztietan. Egun berean, 'Erronkariko Pirinioak' deritzon iraupen eskiko proba antolatu da toki berean.

Ohi den bezala, San Martingo harritik aterako da Goi Ibilaldia, eta bertatik ikusten den Arlas mendiari itzulia emanez, Añamendiko gailurrera iritsi beharko dute partehartzaileek. Ondoren Sommcuyruntz eta Batikoxe gaintu ondoren, 'scalextric' izenaeko errebuelta bihurrian amaituko da proba. Talde bakoitzak federazio bereko bi kidek osatu beharko dute, eta ibilbidea elkarrekin egin, berezi gabe. Talde bakoitzak pioleta, kranpoi pare bat, soka eta iparrorratza eraman beharko ditu. Probaren edertasuna, bestalde, lehia izpiriturik eza da; hain zuzen, beti aipatzen da talde batek laguntza behar izanez gero partehartzaile guztiek prest egon behar dutela horretarako. Horregatik, ez da saririk irabazlearendako. Izena emateko Club Deportivo Navarra jo behar da. 'Erronkariko Pirinioak' izeneko txapelketa iraupen eskian egingo da. Espainiako Federazioak antolatuta, Negu Kirolak koparen barruan, Brotuzko pistan egingen da, maila ezberdinetan. Parte hartzeko 47 51 55 telefonora deitu.

Iruña

Patxi Larrainzarri omenaldia Juslarrotxan

IRUÑA

Patxi Larrainzar apaiz eta idazle zenari omenaldia egingo diote gaur bertan —ostirala— Iruñeko Arrotxapea auzoan. Bertako hainbat taldek antolatuta, Txalaparta argitaletxean hainbat lan argitaratu zuena hil zeneko hirugarren urtemuga ospatuko da horrela. Hitz Anaitasuna izeneko antzerki taldeak 'Amores para le-los' izeneko lana taularatuko du, eta ondoren, Ortazar taldeak eskainiko du ekitaldia. Juslarrotxako Kultur Zentroan izanen da, arratsaldeko 7etatik aurrera. Patxi Larrainzarren lanik ezagunena 'Pega pero escucha' izena daraman liburua da, hainbat urtetan 'Egin' egunkarian argitaratutako artikuluen bilduma.


Navarreako iturritik

Juan Kruz Lakasta

Enroilatuaren dekalogoia (I)

Nortzuk gara? Nora goaz? Zer egiten dugu munduan? Bakarik al gaude unibertsoan?... Gizakia gizaki denetik gisa horretako galdera filosofiko handi eta sakonak egin dizkio bere buruari. Horiei beste bat erants diezaikegu. Zer da enroilatu izatea? Ez naiz Platon, Aristotele edo Kant, ezta Patziku Perurena ere, eta ez naiz galdera hori erantzuteko gai. Haatik, baina horren inguruan beste galdera bati erantzuteko gauza. Zer egiten dute enroilatuak? Mario Gabiriaren urratsak jarraituz, horren inguruko azterketa soziologikoa egin dut azken hila-beteotan. Jarraian irakurgai izanen den dekalogoia da ikerketa sistematiko eta luze horren fruitua. Hona hemen 'Enroilatuaren dekalogoia':

1) Has gaitzen hasieratik, agur esatetik. Duela aste pare bat txoko honetan Jarauta zein Calderian agur esateko erabiltzen diren esamolde ezberdinak aztertu genituen. Enroilatuak horien artean zatarrenak erabili behar ditu; besteak beste, aupiki, aui, agurikos eta agurtxo bezalakoak. Horretaz landa, agur-



tzen duen pertsona gorrotatu arren, enroilatuak halaberrez ezpainenetan musu eman beharko dio.

2) Demagun enroilatu, tabernan sartu eta agurtu beharreko guztiak agurtu eta gero, aulki batean eseri dela. Berdin dio entzuten duen musika gustatzen zaion ala ez, berdin dio arritmiak jota dagoen ala ez, enroilatu izan nahi badu txaloak jo beharko ditu, Tomatito bezalako palma jolea balitz bezala. Halaber, txaloak jotzen dituen bitartean burua astindu beharko du, erritmoren indarrak zorabiatu.

Zaila da, baina, gau osoa besterik gabe txaloak jotzen igarotzea. Egun badaude enroilatu maisu handiak hori egiteko kapaz direnak, baina gutxi. Seguruenik albokoekin hitz egin beharko duzu. Hurrengo aholkuan mintzagai izan daitezkeen gaien inguruan enroilatuak hartu behar duen jarrera azalduko dut. (Jarraituko du...)

Hogeita hiru Nafar Etxe daude barreatuta Espainian eta Ameriketean, horien artean zaharrena Buenos Aireskoa da, heldu den urtean ehungarren urteurrena ospatuko duena. Emigranteek sortuta, harrera egiteko eta aberria gogoratzeko eraiki ziren kultur etxe bihurtu nahi dituzte orain, amaraunek jan ez ditzaten.

Gogoa eta amarauna

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑA

Nafar Etxeak Ameriketean sortu ziren aurrenik, bertara joan ziren nafarrek bultzatuta. Euskal Etxeen inguruan sortuak batzuk, indarra hartu zuten 36ko gerraren ondotik, euskaldun baten bila—haranzko bidea hartu zutenen. Orduko joera nabaria izan zen: abertzaleak eta errepublikarrak, nagusiki, Euskal Etxeetan bildu ziren, eta 'nazionalak' deiturikoak, Nafar Etxeetan. Gaur egun, oraindik ere, nafar gehiago dago Euskal Etxeetan Nafar Etxeetan baino.

Ameriketean ezezik, Espainian eta beste tokietan ere zabaldu ziren horrelakoak, eta horien artean azpimarratzekoa da Bartzelonako Nafarren Etxea. 1923an sortu zen, 'El Hogar Vasco-Navarro' izenarekin, baina ez zuen denbora luze iraun. Hurrengo urtean hautsi egin zen batasuna, eta alde batek Nafarren Etxea osatu zuen, gaur egun oraindik zabalik dagoena. Euskal Etxea desagertu egin zen, eta gora-behera franko izan eta gero, joan den astean zabaldu zituen ateko zentro berri batek.

Emigratioak sortu zituen eraikin hauek guztiek—14 Espainia osoan, eta bederatzik Ameriketean, Nafarroako Gobernuaren datuen arabera—, ordea, ez dute oso etorkizun garbia, hasierako helburua bera kolokan baitago: ez dago emigratorik, eta joandakoak adinean sartuak daude. Beraz, gaur egun emigranteari harrera egiteak ez du zentzurik, eta zentro hauetan aritzen direnak nafarren bilobak edo biloben seme-alabak dira: argentinarrak, mexikarrak edo katalanak, alegia. Zaila nortasuna ez galtzeko eta esanahiren bat aurkitzeko. Haiek folklorea aurkitu dute orain arte.

NAFAR Mikel Aranburu
IZAKERA Ortzadar taldeko
ETA Folklorea
FOLKLOREA kide ohiak 12 egun eman berri ditu Buenos Airesko Nafar Etxean, Argentinako eta Txileko etxe guztien ordezkariak euskal dantzak erakusten eta, berak ikusi duenez, izugarriko garrantzia ematen diote. Zortzi eguneguz, goizez eta arratsaldean, mutil-dantza edo paloteadoak jorratu eta landu zituzten. «Gauza handia» hangoendako, baina eskasa hemendik begiratuta. Izan ere, zein etorkizun daukate zen-

truok? Zahar Etxe bilakatzea? Kasino? Bingo? «Egoitza handiak dira, oso ongi kokatuak, eta balio handikoak», azaldu du Aranburuk, «eta izan dira erosteko proposamenak. Japoniarrak jabetu ziren batez, kasinoari etekin ateratzeko. Horri izugarriko beldurra diote euskaldunek eta, beraz, kultur zentro bilakatu nahi dituzte».

Buenos Aireskoa da horien artean zaharrena, heldu den urtean beteko baititu ehun urte. Mila bazkide inguru, izen handiko nafarrak, eta aurrera egiteko gogoa, Candido Elizalde bere presidenteak azaldu duenez. «Nafar Etxeak izan zuen 10-15 urteko beherakada, aspaldiko politika

Eskuinean, Buenos Airesko Nafarren Etxea, eta behean Juan Cruz Alli lehendakariak 1992an Mar del Platara egin zuen bisitaldian. Ezkerrean, behean, Crisanto Ayanz Buenos Airesko zentroaren fundatzailea.



Mar del Platako zentroan, duela mende erdi, hainbat nafar.

Emigranteen historia

A.B. / IRUÑA

Etxe hauen historia, neurri handi batean, hara joandako emigranteen historia da. Buenos Aireskoa, zaharrena, Crisanto Ayanzena da. 1868an jaioa Montrealean, zortzi nafar bildu zituen Buenos Airesen, mendea bukatzeaz zegoenean, eta hasieran

geroago Iruñeko Udalak, Antonio Sanchez Doussinague zinegotziaren bitartez, zenbait dokumentu eman zituen eraikerako, tartean oraindik gaur egun aitzinaldean dagoen armaria eta Nafarroako lurra zeukan zakua. Horrekin finkatu zen etxe berriaren lehen harria. 1934ko martxoaren 31n etxearen inaugurazio ofi-

nara eta jatetxera ere. Goiko solairuan saloiak eta pilota partiduak ikusteko palkoak daude.

Rosarioko da, dudarik gabe, Argentinako zentrorik modernoena. 1913ko abenduaren 6an fundaturik, hasierako asmoak «nafar guztiak batzea, musika zabaltzea eta irakastea, (...) eta, dirua dagoenean, eskolak zabaltzea nafarren seme guztientzako». 1916an 112 bazkide zituen, eta 1991n 600 inguru. Bi eraikinek osatzen dute zentroa: alde batetik, Nafarren Etxea bera, eta, gibelean, etxebizitzetako eraikin handia. Zentroa modernoa da oso, eta bulego franko alokatuta daude enpresa pribatuei, lekua aparta baita.

Mar de la Platakoa txikiena eta xumeena da. 1992an ospatu zuen 50. urteurrenako birmoldaketa garrantzitsua izan zuen 1991n. Besteak bezala trinketea, taberna, jatetxea eta hainbat gela dauzka.



Bartzelonako Euskal Etxearen inaugurazioa.

Centro Orfeon Gayarre izena zuena osatu zuen. 1895eko azaroaren 3an osatu zen ofizialki elkartea. Bi urte geroago baina, hartu zuen Nafarren Etxearen izakera, aurrerago osatutako Euskal Etxeak kutsatuta, hain segur, eta elkarteak gorputzen zen heinean, arazo ekonomiko larriak zituzten nafarrei laguntzak ematen hasi zitzaizkien. 1898ko uztailean, horrela, bost mila pezeta eman zioten Iruñeko Guruzte Gorriari, eta 1899an zentroak Sanferminak ospatu zituen, sona handiz.

ziala izan zen.

Zentroaren jarduera aurrera zihoan, eta berehala ikusi zen etxea ez zela nahikoa behar guztiak erantzuteko. Horregatik, 1943an, ondoko orubea erosi zuten, etxea handitzeko. Horrela egin zen eta horrela dago gaur egun. Moreno kaleko 3.682. zenbakian, toki lasai batean, zuhaitzez inguratuta, soilik barruan sumatzen da urteen ajea. Atarian beheko solairura ematen duten eskailerak daude, eta bertan daude bulegoak eta liburategia. Liburategi aparta, baina oso gaizki zainduta. Hortik bertatik trinketera sar daiteke, eta baita taber-

1928ko abuztuaren 4an orubea eroستا onartu zen, eta lau urte

Euskal Herria eta Nafarroa bereizirik zeudela», azaldu du Agustin Otondo presidentek, sortzez erratzuarrak. «guri ere gauza bera egitea bururatu zitzaigun». Hala ere, Euskal Etxearekin «oso harreman» onak dituela dio. Ameriketean, orokorrean, hori da jarrera nagusia, Mexikoko nafarrak ere Euskal Etxean aritzen direlako, baina salbuespena Rosarioko zentroa da. Argentinako zentrorik modernoena, hain zuzen ere. Euskal Etxea eta Nafarren Etxea pare-parean, kale berean, betikoak izan dira ezin-ikusiak, eta Gabriel Urralburuk bertara egindako bisitaldian istilu sonatuak izan ziren. Euskal Etxea ikurrinez beteta eta 'Nafarroa Euskadi da' zioen pankarta batez apainduta agertu zen, eta Nafarren Etxe-koek erasotzat hartu zuten ekin-tza.

Gainontzeko zentrotan, ordea, anaiarteko giroa eta harremanak badira, izan ere, eta politika kontuak ahaztuak direla diote gehienek. «Etxeko atek ixten badira», azaldu du Candido Elizalde, argentinarrak duten kutsu filosofikoak eraginda, «zaila izanen da aurrera egiten. Ezin dugu ikurrina paratu, hainbeste urtetako borrokaren ondorioz, baina bai para dezakegu gure bandera, eta bestea errespetatu». Hori dela eta, Buenos Airesen Rosario gertatzen denarekin bat ez datozela dio Elizalde. «Ezin dute elkar ikusi, eta hori ezin dute ulertu. Gu euskaldunak gara, euskaldunak Nafarroan egon zirelako aurrenik, eta saiatu behar dugu Francoren irudia ezin zutelako ikusi Euskal Etxera joan ziren nafarrak itzul daitezten. Bada garaia hori guztia ahazteko. Tamalez, badira horretan tematzen direnak, eta ez dakite hortik ateratzen».

Arazoa ez da bakarrik Ameriketean sortu, eta Bartzelonako Nafar Etxearen Euskide taldea Eus-

Euskal Etxekin loturak batzuetan haserreak, bestetan mesfidantzak, eta hala-koetan bereizteko ahaleginak eragin ditu.

Buenos Aires, Mar de Plata eta Rosariokoak dira. Federazioan elkartuta, bi urtekin behin elkar-tzen dira ospakizunak egiteko. 1992an Mar de Platako zentroaren 50. urteurrena izan zen, 1993an Rosariokoaren 80. urteurrena, eta 1995ean Buenos Aireskoaren mendeurrena izanen da. Horretarako Nafarroako Gobernuak dirulaguntzak ematen ditu eta, horien bidez, zentro

berriak bultzatu nahi ditu. Euskal Etxea izanagatik. Dirulaguntzak 1986an hasi ziren, eta ordutik hona zentro batzuetan Euskal Etxekin zeuden harremanak hausteko ahaleginak izan dira. Hori dela eta, Alli lehendakariak egindako azken bisitan, kezka azaldu zuen nafarren eta gainontzeko euskaldunen artean zeuden harremanen inguruan. Izan ere, Euskal Etxeekiko loturak batzuetan haserreak, bestetan mesfidantzak, eta hala-koetan bereizteko ahaleginak eragin ditu. Hala ere, gertatu da Txilen, duela bi urte Nafarren Etxea sortu baitzuten baztandarren talde batek. Egun 260 bazkide dira, eta lehen denak Euskal Etxean zuzenduen. «1991n, ikusirik Espainian




arazoak bizirik zeudelako, eta Laurak Bat euskal etxean Nafarren Etxean baino nafar gehiago zeudelako. Gaur egun buelta eman nahi diogu horri guztiari, eta jendea berreskuratzen ari gara. Gazteak ere oso azkarrak dira, eta egun 25-30 bat ari dira hemen, lanean. Hori ere Nafar Etxearen etorkizuna». Bartzelonakoak ere gazteen bultzadak berpiztuta dirudi, iaz sortu zen Euskide taldeari esker. Aitor Karasatorre bertako kidearen esanetan, Euskal Kultur Zentroa sortzea da helburua, ez etxe erregionala edo zahar egoitza. «Nafarren Etxea

zahar etxe bilakatua zen aspaldi honetan, eta gure helburua zen

Emigratorik ez dago egun, eta nortasuna ez galtzeko eta esanahia bilatzeko folklorea erabiltzen diote.

hori guztia mugitzea. Etxe erregionala etxe itxi bilakatzen baita beti». Baina ahalegin zaila, antza.

Folklore eta oroitzapen zaharkituetatik abiatuta betebeharrak kulturalak betetzeak ez dirudi asmo erraza, eta bada irtenbide bakarra desagertzea dela dioena. «Nik guztiz makalduta eta beheerantz joeran ikusi ditut Argentinako zentroak», azaldu du Segundo Otazu Mintzoa argitalerako. «Hilobiak soineko ederrez apainduta, kultur girorik ez baita inondik antzematen. Jendea muscan aritzera joaten da, eta gehienak 70 urtetik gorakoak dira. Gazterik ez nuen ikusi». Argentinan bost daude, baina benetan indarra daukatena





Nafarroako Banakako Xake txapelketako bosgarren ihardunaldiko partida, 1994ko otsailaren 19an jokatu.

Sebastian Cervantes (2.130 ELOkoa, 4. rankingean)-Pedro Viñal (2.250 ELOkoa, 3. rankingean).

1.d4,Zf6; 2.c4,e6; 3.Zf3,b6; 4.Zc3,Ab4; 5.Ag5,Ac3 xa; 6.c3,d6; 7.e3,bZ-d7; 8.Ad3,Ab7; 9.0-0,e5; 10.Zd2,De7; 11.f3,h6. Ikus koadroa. Itsu jokatu dute txuriek, arriskua susmatu barik. Zaldia harrapatzea beharrezkoa dute, 'f3' jokaldiak sortarazitako ahultasuna konpondu ahal izateko.

12.Ah4,d4; 13.Ze4. Alfila salbatzeko, peoi bati agur erran behar izan diote. 13... e3; 14.Ge1, g5; 15.Ge3,0-0-0; 16.Af2,Ze5; 17. Zg3, fZ-d7; 18.Af5,h5; 19. Da4, Eb8; 20.Gd1,Zc5; 21.Db4, Df6; 22.Ac2,g4; 23.Ze4,Dg7; 24. f4,a5; 25.Db5,Ac6; 26.Db1,Zc4. Peoi hau aspalditik zegoen kilokolo, lehengo huts horregatik. Defendaezina zen. 27.Zc5,c5. Beltzek '27.Ze3' jokatu izan balute: 28.Za6 xa,Eb7; 29.Zc7,Ec7; 30.Ae3. Arrisku gehiegi beltzentzat. 28.eG-d3, Gd3; 29.Ad3, g6; 30.g6,Zd6; 31.Ac5,Dg3; 32. Af1,Zc8; 33.Ae3,De3 xa. Peoiak babesgabeak izanik, fronte guztiak ezin lotu. Ondorioak: huts nabarmen hau, eta partida uztea.

Mendez mende arbasoen nahia bete


Iratzargailua begiratu eta bederztiak laurden gutxi. Berehala jaiki, jantzi, motxila hartu eta iturrirantz abiatu nintzen. Han zeuden lagunak nire zain. Bederztiatzen mendirantz abiatu ginen; eguzkia gure gorputza kiskali nahian zebilen eta geure motxilek, lagun leial batzuek bezala, atzetik jarraitzen gintuzten. Halere, gorantz jarraitu genuen.

Igotzen gindoazen heinean, arnasa ezin hartu zegoen norbaiten hatsa entzuten nuen behin eta berriro nire atzean. Burua atzerantz bueltatu eta motxila bokadilloz bete-betea zekarren mutil lodikote eta mardul bat ikusi nuen. 'Joxepotolo' zen. Bere begi beltzek nekea erakusten zuten. Ez zen harritzekoa, jaten zuten guztiarekin ezin zituen bere hanka lodikoteak arintasun eta azkartasunez mugitu. Bere ahoa etengabe mugitzen zen, eta txantxarrez beteriko hortz batzuk estaltzen zituen. Hala eta guztiz ere, lagun ona zen, leiala eta baita arduratsua. Farre egitea asko atsegin zuen.

Farre egitearen erruduna Markel zen. Oso alaia zen eta pailazoarena egitea atsegin zuen. Txisteak kontatzerakoan, bera zen trebeena. Hain zen goxo, atsegin eta adikor. Bere aurpegiak izar baten argitasuna zuen, eta bere irrifarreak denok kutsatzen gintuen bere alaitasun eta poztazunaz. Beltzarana zen eta bere begi marroiek, bazuten distira berezi bat. Beraren ondoan nengoenean oso ondo sentitzen nintzen. Nire lagun Amaiur gerturatu eta ea ura nahi nuen galdetu zidan. Amaiur neska altua eta argala zen. Bere begi berdeek, eguzkiak uda honetan belztutako bere aurpegia alaitarazten zuten. Bere ile beltzarana mototx batean zeukan lotuta.

Arkaitz zihoan lehena. Bera ohiturik zegoen mendian ibiltzera, eta gainera mendiko bota berriak estreinatu nahi zituen. Arkaitzen izakera, besteenaren aurkakoa zen. Oso berekoia zen, eta ia beti oso goibel zegoen. Izarok Arkaitzi jarraitzen zion, nekaezinak ziruditen biok. Izaro oso ixila zen, eta oso lotsatia. Behar bada horregatik, Arkaitzekin oso ongi konpontzen zen. Iker gurekin zetorren hitz egiten. Oso atsegina zen, eta lagun guztien arazotxo edo sekretotxoak zekizkien. Bere ilea, udazkeneko zuhaitzen hostoen kolorekoa zen, eta bere begiak, gardenak, berde urdin artekoak.

Mendi tontorrera iritsi ginenerako, hamabiak ziren eta zuhaitzen itzalpean geure bokatak jan genituen, gustura asko. Arkaitzek baloia atera, eta batak besteari jaurti-



Aintzane Erdozia

(BAKAIKU)



tzera jolastu genuen. Leher egindak geunden. Beraz, belar gainean etzan, eta han geratu ginen, siestan. Geroago, biribiltxo bat egin, eta aiton-amonak kontatutako ipuin, txiste eta geure ametsak kontatzen egon ginen. Zein gustura! Hura bai zela momentu zoragarria. Bapatean, zeru urdina laino beltzek estali zuten.

Denok bildurtu ginen. Bizar luze eta txuriak hanketaraino iristen zitzaion, eta bere eskuak ximur-ximur egindak zeuden. Bere aurpegian, bi begi urdinek tinko begiratzen ziguten. Soinean jantzi apurtu batzuk zituen. Bere ahotsa dardartia eta ozena zen. Ez beildurtzeko esan zigun, ez zigula minik egingo. Euskal Herriaren alde burrukatzeko esan zigun. Bera orain dela berrehun urte hil zela Euskal Herriaren alde burrukatzen zegoela, eta harrez gero, ezin izan

zuela pakean atsedean hartu, Euskal Herriaren egoera dela eta «Denak batera Euskal Herria Defendatzera» esanez besoa altxatu eta maldan behera joan zen, desagertu arte. Gu zer esan ez genekien bitartean, lainoak desagertu eta lehengo zeru urdina azaldu zen. Batzarre txiki bat izan ondoren, agurreak esandakoa egin behar genuela erabaki genuen. Hartutako sustoa ahaztarazteko baloiarekin jolastu genuen inguru haietan.

Geroago, zazpiak aldera, herrirantz jaisten hasi ginen, eta bide erdialdean gindozela, Markelek hanka makurtu zuen. A ze sustoa hartu nuen! Nere bihotzeo Markel gabe geratzen nintzela pentsatu nuen. Hanka ezin zuen sustengatu, eta bi pertsonen

laguntza behar zuen herrira jaisteko. Iker eta ni aukeratu gintuen bera laguntzeko. Orduan argitu nuen nere kezka handienetarikoa bat. Markelek ni aukeratu ninduen bidean zehar laguntzeko, beraz nigan pentsatu zuen, beste nesketan beharrean.

Herrira iritsi, eta Markel etxean utzi ondoren, etxera joan ginen denok. Dutxa on bat hartu ondoren, nere amaren afari goxoa jan nuen, eta kalerantz zuzendu nituen nire pausoak, herriko plazarantz zehazki. Han lagunak bildu eta promesa bat egin genuen, Euskal Herria defendatzek geure bizitza osoa eman behar genuen ere, egingo genuela. Gure Amalurra zaindu behar genuen. Horrela bada, zazpi neska-mutiko gehiagoren indarra bildu zen gure aberriaren alde borrokatzeko. Borrokazazu zeuk ere, zure eskuetan dago.

JUANTXO URDIROZ

~~~~~

## Ijitoen iharduera Nafarroan (eta II)

XVII. eta XVIII. mendeetan ere ijitoek gehien maite zuten eskualdea Pirinioaldea zen oraindik ere. Nafarroako gorteak erresuman egon ohi diren abere lapurretaz kexa azaltzen zaizkigu, eta batez ere Iparraldeko probintzien mugetan ematen zirelako. Alicia Stürtzek azaltzen duenez, ez da alferriko gauza XVIII. mendean Nafarroako Estatuak prezeski eta klaurki galerazten dutena 'que los vagabundos tengan relacion con las gitanas, a quienes dejan encintas'.

Badago istorio bat erromantikoa

samarra dena. Baigorriko abate edo apaiza buhameen bandan sartzen da 'devorado por el fuego de la concupiscencia' nonbait. Geroago taldeko buruzagi izatearaino ailegatuko da eta Iruñeko gartzelan biziari adio esan zion, egiazko saindu batek esango likeen gisan. XVIII. mendean bukaeran, frantziar Encyclopédie-k ematen duen definizioa, 'vizcaino' hitzaz harrigarria da. 'Bizkaikoak eta Pirinioetako beste biztanle batzuk ijitoen etorkinak dira. Jende superstizio-tsuari zorionekoa irakurri eta la-



**Ez usteak zure atean joka**

**Desberdintasuna para ezin lezakeen Estaduak kontrolaezin zaion guziaren kontra borrokatzen du.**

purreta egiten diote'. Frantziako monarkiak ijitoak 'feu eta fer', edonola ere kanporatzea erabaki zuen XVIII. mendean. Behe Nafarroako Estatuak Batzarreak Donapaleun bildurik, buhameekin traturik egin edota beraiei aterperik ematea debekatu egin zuen. Alicia Stürtzek dioenez. Historiagile horren ustez garbi dago ijitoekiko egoera. Desberdintasuna paira ezin dezakeen Estadua kontrolaezin zaion guztiaren kontra borrokan da. Oraingoan ijitoen aurka.

Bi erronkariar kexu datoz auzitegira, bi ijitosak harrapatu eta 'se abrazaron a ellos, les hicieron festas y les quitaron cuatro ducados en la faldriquera'. Alicia Stürtzeren irudikoz, hauek ez dira pertsona bat urkatzeko moduko arazoak. Eta berak salatzen due-

nez, egin egiten ziren halakoak Eugin erran zigutenez. Abaurre gainean bazen duela gutxi famili ijito euskaldun bat, albaitari ibizena. Haieci esker abere aunitz salbatu ziren zoko hortan. Guk dakigula, dagoeneko Pirinioaldetik utzia dute ijitoek. Axularrena da esaldi famatu hura. 'Zeren hura da ohoiñen (ebasleen) kapitainia ijitoen kondea, bertzeren ebasietan ere parte duena'. Ukimenaz ari zen, zentzu guztien gainetik dagoenaz. Haren ustez, arriskutsuena. 'Ikusteaz, mintzatzeaz entzuteaz eta usnatzeaz egiten debekatu, ez ordea ukitzeaz bezala Bertze zentzuek urrutitik, baina ukitzeak hurbiletik akometazendu'. (Ax. 271). Norekin konparatu eta ijitoekin. Ijitoen Konde ukimenari deitzea ere ez da metafora makala.



**A**urtengo Nafarroa Oinez abian da, abia bizian. Hiru urtez borrokatu ondoren, Berako Labiaga Ikastolak gauza asko zeuzkan prest baietza eskuratu zuenerako, eta egun, sei hilabete aurretik, berrehun lagundik gora ari dira lanean Bidasoa aldean. 'Bideosoan' izanen da leloa, eta baita helburua ere, bigarren maila ikastolan bertan eman ahal izatea baita beratarren ametsa.

## Inoiz baino goizago

PATXI ULAIAR / BERA

Inoiz baino goizago abiatu da aurtengo Nafarroa Oinez. Sei hilabete pasatxo falta direlarik, lana franko aurreratuta daukate Bidasoa aldean, eta gaur bertan egingen da aurkezpen ofiziala Iruñean. Ibilbidea zehaztuta, logotipoa eta leloa moldatuta, materiala sotoan, dena egina dagoela irudi lezake, baina oraindik falta denarendako berrehun lagundik gora ari dira lanean inguruan. Joxean Oitz ikastolakoak azaldu duenez, trenari bigarren martxa jartzea besterik ez dute egin, hiru urte baitzeramaten festaren atzetik. «Ikastolen Federakundeak baimena eman zigunean, abiatan geunden jada».

'Bideosoan' izanen da aurtengo leloa, izokin baten irudierekin, eta iazko Oinez-en hain arrakastatsu gertatu zen txoritxoaren egileek osatua. Irudiaren eta leloaren gibelean, esanahi franko. «Hemengoa izateaz gain Bidasoa osoa batuko zukeen irudia lortu nahi genuen, hau da, irudi komuna. Izokina ikusi bezain laster, erabaki genuen: beti aurrera egiten duen arraina da, oztopoak oztopo, eta laguntzak probesten ditu helburua lortzeko. Leloak ere badu hitz joko ederra. Bidasoa ugaldia eta gure helburuak batu nahi genituen, bide osoa egin nahi baitugu, etenik gabe». Izan ere, Labiaga Ikastolak erronka handia du aurrean LOGSEk eskatzen dituen baldintzak bete ahal izateko. Oraingo egoerarekin egun daukan eskaintza —3 eta 14 urte bitartekoendako— murriztu beharko litzateke, eta haien aspaldiko asmoa da, hain zuzen ere, 16 urte arte ematea.

1982ko Nafarroa Oinez-en egon zenak gogoan izango du orduko antolakuntza eta ibilbidearen edertasuna. Orduan ikusi zen lehendabiziko aldiz horrelako jaiak eman ahal zuten guztia eta 15.000 lagun inguru bildu ziren herrira. Herri osoa buru-belarri aritu zen egun hartan, eta oraingo antolakuntzak eta jaiak zerikusi gutxi baldin badauka ere, parekotasunik bada, bederen: ibilaldia. Ordukoaren bikoitza izanen da antolatzaileek osatu duten 9 kilometroko ibilbidea, eta menditsua baino gehiago, mendikoa dela diote bertan. Altxatetik atera eta Suspel-Titiki, Ileketa, Zia eta Donakua auzoak zeharkatuko ditu, paraje ederrak bisitatu, eta Berako inguru zoragarriena-koak ikusi ahal izango dira.

**KANTA NEGU GORRIAK-EK** Kanta Negu Gorriak taldeak egingo du, eta ekainerako aterako da. Hau izan-



NAFARROA  
OINEZ  
BERA 94

## Bigarren hezkuntza

P.U. / BERA

■ Irailaren 18an eta urte guztian zehar saldatukoarekin ateratako dirua ikastola berria eraikitzeko erabiliko da. Lurrak erosita, bertan eraikina altxatzeko baimena duela hiru urte eskuratu zuen Labiaga Ikastolak, baina gauzak «zuhurtasunez» egin nahi izan dituzte. «Ikastolan ez dugu inoiz zorrik izan, baina ez genuen dirurik eskura horrelako lanetan sartzeko. Horregatik iturri bat behar genuen eta horregatik antolatu dugu Oinez».

Derrigorrezko bigarren hezkuntza eman ahal izatea, hori da helburua. Egundik, ikastolatik ateratzean, ikastetxe publikora joaten dira inguruko haurrak, eta

go da irundarrek aurten kalera-tuko duten lan bakarra, eta haien aldetik ere oso jarrera ona izan dutela azpimarratu dute. «Bazuten izugarritzko gogoa lan hau egiteko, eta guretzako laguntza handia da, haien esku uzten baitugu dena».

Abia bizian, beraz, Oinez, eta animo handiz, nahiz eta kritikak ez diren falta izan. Izendapenak berak zenbait haserre sortu zituen, Erriberako Tuteran ere lehian baitzegoen eguna antolatzeko. Eta beharrak inon baino handiagoak dira bertan. «Arriskua genuen gure proiektu osoa —derrigorrezko bigarren hezkuntza ematea— behera eror-

tzeko», dio Oitzek, «eraikina ezinbestekoa baitzaigu horretarako. Jendeak ulertu egin zuen hori, eta gehiago osoz lortu genuen gure aldeko botoa». Esames ugari sortu du, orobat, dataren aldaketak. Azken urteotan urrirra 'erbesteratuta', Oinez-ek iraila berreskuratu baitu aurten. Kilometroak-en aurretik. «Beran, irailean, eguraldi onena izanik ere, lainotsu eta iluna aterako zitzaigun, eta garbi esan genuen hain berandu ezin zela egin. Ohartu zirenean antolakuntza eta plangintza aurreratuta genuela, baietzkoa eman ziguten». Inoiz baino goizago helduko zaigu, beraz, aurtengo Oinez.

Berakoari ezezik, Bortzirietako eskaerari ere erantzun nahi diote era horretan beratarrek. Lesako Ikastolakoei, horrela, eskainiko liekete bigarren hezkuntza Labiagan egitea. Bi azpiegitura eskatzen zaizkio horretarako Labiagari: materiala eta pedagogikoa. Materialaren azpiegiturari dagokionez, lau gela gehiago beharko lirateke, baina Altxate kaleko etxe zaharrean ez dago horretarako tokirik. Pedagogi arloan «inongo arazorik» ez litzatekeela izango diote ikastolan, azken urte hauetan irakasle tituludunak eta prestatuak hartu izan baitira. Hamasei urte arteko irakaskuntza eman ahal izateko beste baldintza, haurrena, ziurtatuta daukate.



# «Hemengoak ez gaitu asetzen»

JUAN KRUIZ LAKASTA / IRUÑEA

**EGUNKARIA.**— Zenbaitzuek Arturo Kanpion Iruñeko euskaltegi bateko burua dela uste dute.

**ASISKO URMENETA.**— Arturo Kanpion da herri honetan oso bazterturik egon den kultur gizona, eta gaur egun, zoritxarrez, oraindik ere ezezaguna da. Oso garrantzitsua izan zen lau alorretan gehienbat: politikan, hizkuntzan, literaturan eta historian. Sabino Aranak arrazan oinarritzen zuen herri honen galtzea. Kanpionek, berriz, hizkuntzari ematen zion garrantzia, ez arrazari, odolari edo horrelako deusi. Horretan datza bere originaltasuna.

**EGUNKARIA.**— 'Erraondo' komiki-liburua besapean hartuta, nolatan abiatu zineten Habanako topaketetarantz?

**ASISKO.**— Latinoamerikako Historiazaleen Elkartearen topaketak egiten dira bi urtetik behin. Gu ez gara amerikanoak, ezta latinoak ere, baina eskaera egin genuen joateko, eta gure lanak aurkezteko. Oso positiboa izan da, batetik zertan ari diren ikusteko, eta bestetik zenbait publikoaziorekin harremanak egiteko, gehienbat Kubako 'El Muñe', Argentinako 'Breccia', Mexikoko 'El Gallito Inglés' aldizkari eta tailerrekin. Guk gure materiala bidaliko diegu, eta beraiek guri euren. Gu izanen gara beraien mutur-sartzea Europan, eta guri ere oso ongi etorriko zaigu arnasa berria sartzeko aldizkarian. Oso ilusionaturik gaude. Elkarlanean hasteko, Kubara papera eta hemengo komiki zaharrak bidaltzeko asmoa dugu.

**EGUNKARIA.**— Zer sentiarazi dizute epaimahaiak eskaini dizkizun alabantza eta loreek?

**ASISKO.**— Denondako oso inportantea izan da sari hori han eskuratzea, Kuban. Niretako, baina, eta ez da apalzeria, askoz inportanteagoa izan da Euskal Herria delegazio gisa onartu gaituztela, Nire lana saritua izan da, baina hori 'Napartheid' aldizkariaren eta oro har gure mugimenduaren lorpena izan da. Ohartu gara gure



Asisko Asiskok ikusita.

biotopoa hor dagoela. Europan gara baina txiripaz, eta hemengoak ez gaitu asetzen. Mundu pobreaken bizitza askoz ere barneratuagoa dugu. Ez dugu komikia bitarteko merkantilista gisa ulertzen, baizik eta bizitzeko era, gauzak elkarri kontatzeko bitarteko polit moduan.

Elkartrukea oso polita izan da. Esaterako, argentinoek izugarri ongi egiten dute lan, ordu piloa sartuz eta abar. Aspalditik zuten aldizkari bat ateratzeko ideia, baina kokildurik zeuden merkaturak ikusita. 'Napartheid-en' 13. alea atera berria dugula ikusita beraiek ere ikasi dute ausardia izaten. 'Napartheid-en' badira komiki batzuk onak, beste batzuk onargarri samarrak eta beste batzuk eskasak, eta Argentinakoek esan digute: «zuek ere eser zaitezte, eta sartu ordu gehiago zuen lanetan».

**EGUNKARIA.**— Loreak jada aipatu ditugularik, aipa ditzagun arantzak. Juan Luis Zaba-

«Ez dugu komikia bitarteko merkantilista gisa ulertzen, baizik eta bizitzeko era, gauzak elkarri kontatzeko bitarteko polit baten moduan».

lak **EGUNKARIA**n zure komiki-liburuaz eginiko kritikan zera zioen, euskal komikigintzan euskara gora, euskara behera, beti gai beraren inguruan aritzen zaretela. Zer deritzozu arantza horri?

**ASISKO.**— Egia da. Dena dela, gurekin ez du asmatu. 'TT' bildumaren asmoa Arturo Kanpionen lanak komikiaren bitartez ezagutaraztea da. Lehenengo ipuina 'Erraondo' izan da, hori betidanik gustukoa izan dudalako, baina Kan-

pionek baditu beste gaiak buzurko ipuinak. Adibidez, bildumaren bigarren alea Pernanek marraztuko du, 'Pedro Mari' ipuinean oinarriturik egonen da, eta intsumisioa du ardatz nagusi. Oro har, dena dela, egia da Zabalak dioena. Batzuetan guri ere itogarria egiten zaigu. 'Napartheid-en' autokritika egiten ari gara, eta salto handia ematear gaude horri dagokionez.

**EGUNKARIA.**— Gidoilari eskasiak ba al du arazo horrekin nolabaiteko loturarik?

**ASISKO.**— Gidoilari falta ikaragarria dugu. Guk duguna da esku ona marrazteko, eta kitto. Betiko gaien inguruan aritzen gara. Nik badakit zerbait marrazten, eta ez dut nere burua bortxatuko, segituko dut hori bera marrazten. Gidoilari batzuk zerbait esaten badit, pixka bat moldatu beharko dut nere marrazki era horretara. Herri honetan bada jende oso baliagarria, baina tabernetan botatzen dira gauzak, eta bi segundutara galtzen da. Nik badakit marrazten, baina ez dut inolako graziazirik, eta nolabaiteko sinbiosia beharko nuke, SOS!

**EGUNKARIA.**— Latinoamerikako Historiazaleen Elkartearen Topaketetan, ba al zegoen, estiloari dagokionez, Euskal Herriko komikigileak gainontzekoetatik bereizten zituen zerbait?

**ASISKO.**— Bai, nik uste dut baietz. Murillo komikigileak errandakoarekin bat nator hemen. Adierazkortasunari garrantzi handiagoa ematen diogu preziosismoari baino. Positiboa egiten zait hori, eta askoz gehiago gustatzen zait gure estiloa Europakoa edo Bartzelonakoa baino. Horiak preziosismo hutsa dira. Komikian bada franko-belgikarren estilo higuinagarria, hotza eta preziosista, Tintin eta antzekoena. Katalunian egiten dena horren mutur-sartze bat da hegoaldean, eta Euskal Herrian guztiz kontrakoa dugu, batzuetan kontrakoegia. Ideia, adierazkortasuna... alde horretatik oso aberatsak gara, baina batzuetan marrazkian hust egiten dugu, oro har.

## Asisko Urmeneta

KOMIKIGILEA



SOSLAIA

### Europar txiripaz

«Bere herriko gazi-gezaren ikuspegia emateko zuri-beltzen erabilera trebea eta itxuraz arkaikoa izanik ere, modernitatea fin landua den teknika jorratuz, marrazkian azaldu duen gorenko graduagatik». Horrexegatik eman diote Asisko Urmენტaren 'Erraondo' Komikiari Erret Palmorri saria Latinoamerikako Historiazaleen Elkartearen topaketetan. Saria ezezik Asiskok eta 'Napartheid-eko' gainontzeko *parthaideek* euren biotopoa aurkitu dute Habanan eginiko topaketetan. Komikia da, beraiantzat, bizitzeko era, eta gauzak kontatzeko bide polita. Europan daude baina txiripaz, eta hemengoak ez ditu asetzen.

## NOSKIJATOR

© Zaldi Eroak

